



Kulturaz

Azpeitiko Kultur Kooperatiba

2019ko urtekaria



Jose Luis Otamendi

Kulturaz Azpeitiko Kooperatibako
Artezkaritza kontseiluko lehendakaria

“Kultur jardun duin bati
bide eman nahi diogu
lehia eroaren eta datu
ekonomikoen diktaduraz
haratago.”

Kulturaz Kooperatiba zaharberrituaren lanaren berri emateko azken “urtekaria” argitaratu zenetik joan dira lau urte. 1.001 gau eta gehiago izan dira, eta era askotako historia eta gorabehera artean bada ere, kulturaren fabrikak bizi-bizirik segitzen du herri honen egunerokoa nolabait taxutzen. Hori erakutsi nahirik gatozkizu.

Uste dut kulturaren egiteko nagusietako bat pertsonari munduan bere tokia bilatzen laguntzea dela. Norbere burua eta ingurua hobeto ezagutzeko baliabideak eskaintzea, nor izaten ikasi inor baztertu beharrik gabe, inor ahaztu gabe.

Hain justu ere horixe da Kulturaz kooperatibak bere buruari agindua diona, Azpeitia mailan Kultur Mahaiaren erremienta izan hainbat eta hainbat zerbitzu eta tresna herritarren eskura jartzeko. Eraikinak dira, kudeaketa, aholkularitza, finantzaketa, zerbitzu teknikoak, komunikazioa, ostalaritza ...

Kulturaz ez da oasi bat, baina asmo sozial argiko enpresa denez funtsezko xedea dugu espazioa, denbora eta babes eskaintzea kultur gose eta egarri denari, izan norbanako edo izan eragile. Aldi berean, ondotox dakigu kultur fabrika honen jardunari eusten diona zerbitzatzen duen komunitatea bera dela: bazkideak, langileak, herritarrak, Azpeitiko Udala, eta beste hainbat erakunde eta enpresa. Askok eskatzen dugu bueltan ahal duguna emateko.

Oreka zailean baino ezin da bizi lehentasuna kultura eta euskara dituen kooperatiba bat. Kultur jardun duin bati bide eman nahi diogu lehia eroaren eta datu ekonomikoen diktaduraz haratago. Hortik datozkigu buru nekeak eta pozbideak, horixe baita gure izatearen marka.

Seguru nago hamaika irakaspen eta historia mamitsuren artean, beste 1.001 gau eta askoz gehiagotan ere egingo duela aurrera egitasmo eder honek orain arte bezala herritarron arnasak hauspotzen badu.

Neguko igande iluntze epel batean herriko abeslari eta musikariak Sanagustin kulturguneko taula gainean ikustea; eta, haien lanaren gosez, herritarrek kulturgunea betetzea. Azken urtean herrian izandako kultur ekintzen %75 herriko talde eta norbanakoek antolatzea. Udalaren sormen beka jaso duten hainbat azpeitiarrek herriz herri beraiei lana aurkezteko eta zabaltzeko aukera izatea, arrakasta osoz. Gure oholztetan, gure herritarrek, gure izaera eta gure hizkuntza ikustea, entzutea eta sentitzea. Gure ikus-entzuleak hainbat adin taldetakoak izatea, gazteen presentzia handituz. Horixe da sormena eta transmisioa lehen lerroan jartzea.

Izan ere, behin eta berriro aipatzen ditugun kontzeptuak dira sormenarena, transmisioarena. Estrategikoak direla esaten dugu, euskal kulturgintzan ezinbestean heldu beharreko erronkak. Baina, askotan, hitzetatik harago, zail egiten da ikustea horren ukigaitz diren ideietan nola ari garen hazia ereiten. Bada, sormena bultzatzea da sortzaileei beharrezko espazio, denbora eta mimoak eskaintzea beraiei lana duintasunez egin dezaten. Eta transmisioa da lan hori balioan jartzea, herritarrengana iristeko bideak ematea, oholtzak eskaintzea; alegia, kultur zirkulu bat sortzea, non sortzaileek sormen eta ekoizpen prozesu guztian ondoan izango gaituzten. Eta soilik horrela lortzen da gure herritarrek, edozein diziplinatan dela ere, sormen bulkada horiei bide ematea, oholtzara igotzeko indarrak hartzea eta ikus-entzule-irakurle edo dena delakoaren babesa sentitzea. Soilik horrela lortzen da neguko igande iluntze batean Sanagustin betetzea. Kulturaren ziklo hori ahalik eta goxoen borobildu nahian gabiltza; izan ere, ikusi dugu badirela baldintzak gure herrian kulturaren ekosistema osoa izateko.

Bide horretan jarritako ahaleginagatik, eskerrak eman nahi dizkiegu kultur dinamika honen egunerokoan parte hartzen duten talde, norbanako eta ikus-entzuleei; eta, jakina, Azpeitiko Kultur Mahaiari zein Kulturaz kooperatibako langileei. Zuek guztiok zarete honen funtsa.

Bide honetan, baliabideak eta ilusioa jartzen jarraituko dugu udaletik ere, eredu hau, kultura ulertzeko eta bizitzeko modu hau eta elkarlanean aritzeko konpromiso hau berresten dugulako. Horrexen erakusle da 2016tik hona Azpeitiko Udalak Kultur aurrekontua %43,8 igo izana.

Agertokien herria bihurtu zen Azpeitia, Dinamo Sormen gunearekin sormenaren laborategia ere bada dagoeneko, eta gure kultura, izaera eta hizkuntza transmititu eta zabaltzeko lanean jarraituko dugu.

Kultur giroa ari du Azpeitian.



Eneritz Albizu

Azpeitiko Udaleko

Kultura, Euskara eta Parte-hartzea
batzordeburua

“Kulturaren ziklo hori ahalik eta goxoen borobildu nahian gabiltza; izan ere, ikusi dugu badirela baldintzak gure herrian kulturaren ekosistema osoa izateko.”

HERRIKO ERAGILEAK



Elkarlana, babesa eta desioa ezinbesteko oinarriak dira Azpeitia inklusibo baten helmugarako bidean. Kulturaz Kooperatibari eskerrak eman nahi genizkioke bide horretan lagun delako. Hasteko, Atzegiren kanpaina sustatzen laguntzeagatik, eta espazio eta testuinguru jator eta goxo bat eskainiz, Atzegiko kide den oro duintasunez jasotzeagatik. Bestalde, kontuan hartuak sentitzen gara eta eskertuta gaude, Azpeitiko merkatariek antolatutako *Bertan bizi, bertan erosi* filosofian oinarritutako desfilean parte hartzeko aukera emateagatik. Azkenik, eskerrak, egunerokotasunean aniztasun funtzionala duten pertsona orori eta bakoitzari merezi duen tratua emateagatik. Bide honetan eskutik helduta hainbat ekintza eta jarduera elkarlanean egiten jarraituko dugulakoan, eskerrik asko.



"Zertan lagundu dezaket?" galderarekin gerturatu zaigun orori "zer dakizu egiten?" galderarekin erantzun izan diogu beti. Kulturaz Kooperatibak galdera horrek duen zentzua hasiera-hasieratik ulertu zuen, beraiek dakitenean, jaiokak diren esparruan, laguntzeko prest egon baitira beti.

Marea Urdina filmaren Soreasuko emanaldia posible izan zedin erreztasunak besterik ez zizkiguten eskaini, guk bakarrik dakizkigu *Ezagutu nazazu* erakusketa Sanagustinen izateko egin zituzten ahaleginak zer-nolakoak izan ziren, eta nola ez, *Luan autismoa duen haur berezia* liburaren aurkezpena egiteko izan genuen laguntza txalotzekoa da.

Hori dena gutxi balitz, etorkizunerako hainbat proiektu ditugu eskuartean dagoeneko, eta horiek prestatzeko elkarlanean ari gara. Etxean bezalaxe sentitu izan gara beti, gertuko, goxo, eroso... eta lerro hauek zuenganako esker ona adierazteko izan daitezten nahi dugu.

Dudarik gabe, zuek ere Marea Urdina zarete!



Mendiari eta aisiari lotutako irteerez aparte, kultur arloko ekintzak ere antolatu izan ditugu; mendi asteak, hain zuzen ere. Urteetan era guztietako mendizaleen emanaldiak eskaini eta erakusi arren, aspalditik genuen mundu mailako izarren emanaldiak Azpeitian eskaintzeko gogoia. Nora joan? Nori deitu? Zein ate jo? Zaila egiten ari ziztaigun horretarako bidea irekitzea, baina 2013. urtean Kulturaz Kooperatibaren bitartez lortu genuen mendiko goi mailako film bat ekartzea. Film hori Iñaki Otxoa de Olza alpinista nafarraren erreskate antologikoan oinarritutako *Pura vida* izan zen. Film horretan, jatorri eta kultura desberdinetako zortzi lagun batzen dira beren lagun bati bizitza salbatzeko, eta metaforikoa badirudi ere, gu ere elkarlanean batu ginen film hori eskaintzeko. Egia esan ate asko zabaldu zaizkigu Kulturaz Kooperatibarekin elkarlanean hasi ginenetik eta benetan eskertzekoa da egiten duen lana. Zazpi urte igaro dira *Pura vida*-ren emanaldi hartatik, eta harrezkero, ugariak izan dira elkarlanean antolatu ditugun ekintzak. Bizitza luzea izan dezala gure elkarlanak!



Haurrak eta nerabeak ditugu gure egunerokoan protagonista, eta horien ongizatea bilatzen zein bizitzarako tresnak hartzen laguntzen egiten du lan Jauzikako lantaldeak. Azken urteetan, herriko beste eragile batzuekin elkarlanean, gure proiektu hezitzaileari beste ikuspegi bat eman nahi izan diogu. Haurrak eta nerabeak herriko komunitatera gerturatzeko asmoz, Kulturaz proiektuarekin egin dugu topo.

Aberatsa da; izan ere, guk gure kasa iristerik ez genuen lekuetara iritsi ahal izan dugu elkarrekin. Antzoki baten tripak ikusi ahal izan ditugu, antzerki obra baten aurre estreinaldira joan gara, kaleko muralgintza proiektu bat gertutik ezagutzeko aukera izan dugu... Eta beraiek, protagonista sentitzearekin batera, artea zentzumenez dastatzeko aukera izan dute. Artea gertutik bizitzeak artea maitatzeko arrazoiak eman dizkie.



IÑAKI LANDA ARTgia Sorgune • Aretoa

Euskarazko sorkuntza garaikideak behar zuen gunea da Dinamo sormen gunea. Nomadak proiektuari esker iritsi ginen ARTgia-ko kideok Azpeitira: Vasco Navarro delako trenaren burdinbideei jarraituz, Eusko Jaurlaritzaren Bitartez deialdiari esker. Kulturaz Kooperatibako kideei esker, dena izan da errazagoa, sinpleagoa, gertukoagoa. Beti prest: laguntzeko, bultzatzeko eta indartzeko prest; eta hori da, hain zuzen, kulturak behar duena. Kultur proiektuak zurea ez den herri batean garatzeak badiu zailtasunak: herritarrengana nola iritsi, publikoak nola gerturatu, lekuko artistekin sinergiak nola eragin... Azpeitian etxean bezala sentitu gara, bai gu, baita burututako programan parte hartu duten zortzi nazioarteko artistak ere. Finean, elkarlanerako ateak zabaldu ditugu Azpeitia eta Gasteiz artean, euskarazko sorkuntza garaikidea sustatzeko abagunea eraikiz. Ramon Zallok esaten zuen kultur egitasmo guztien helburua errealitatea eraldatzea dela, eta guk zera eranstean diogu horri: errealitatea aldatzeko Dinamo moduko lanabesak behar ditugu, sortzaileon arteko sinergia sortu eta gure herria eraldatzen jarraitzeko. Segi horrela!



MIREN GAZTAÑAGA

Sorkuntzarako arnagune den eremu aske batek badirudi ezin duela herri baten kultur dinamikaren estruktura ezinbestekoa izan, askotan estruktura ezinbestekoek zurrinak izan behar dutenaren sinesmena baitugu, gogorrak, eskusiboak, iraganeko gizonezkoatasun fosilizatu batetik abiatutakoak, kudeaketa ideologia hertsietakoak...

Dinamo sormen gunea, ordea, euskal sorkuntzaren arnaguneetako bat izateaz gain, Euskal Herriko kultur dinamikaren estruktura ezinbestekoa bihurtu da, eta ez da kasualitatea, jakina. Atzean duen lana handia da, proiektuari eskaini zaion denbora eta eman zaion maitasuna, bertara lanera joan eta gonbidatu gaituztenoi egin diguten harrera, eskaintzen dituzten proposamen anitzak, beraien begirada zabala eta errespetuzkoa, ekiten jarraitzeko gogo amaigabea etabar luze bat. Topagune, sorkuntzagune, laborategi, sukalde, etxe.

Niretzat, sortzaile bezala, haratago joateko katapultatzaile izan da beti bertan bizi izan dudana. Bejondeizuela! Eskerrik asko!



AGURTZANE AIZPURU

Azpeitiak kultur kudeaketarako eredu propioa du, marka sortu du, eta Azpeitian gertatuak interesa piztu du han eta hemen. Kultur eragileen eta herritarren beharretatik sortutako eredu hau behetik gora eraikia da, eta hori da bere funtsa eta izateko arrazoia. Kultur politikek hemendik abiatu, eta honen guztiaren bidelagun izan behar dute. Proposamen honek erdigunean ditu: herritarrak, sormena eta euskara.

PROIEKTUAK

Badira urte batzuk kooperatibatik ohiko programazio eskaintza oparoaz haratago, kultura modu integralean lantzeko hainbat proiektu eta ekimen sustatzen hasi ginela. Proiektuok sormenaren, transmisioaren eta ikusgarritasunaren baitan daude lerrokatuta, eta ikuspegi irekiagoa eta osoagoa ematen diote gure jardunari. Sortzaile berriei baliabideak eskaintzea, kultura herritarregana gerturatzea, etorkizuneko kulturazaleak elikatzea eta gure kulturari balioa ematea dira proiektu eta ekimen horien helburuak, besteak beste. Kultura gure egunerokotasuneko esparru desberdinetan txertatzea, alegia.

Honako hauek dira 2019an zehar kooperatibak bere kabuz nahiz beste eragile batzuekin elkarlanean landu dituen proiektu eta egitasmo garrantzitsuenak:



KULTUR BONOIA

Seigarren urtez jarraian, kultur ekitaldiez modu errazagoan gozatu ahal izateko bono-txartela plazaratu genuen abenduan. Jada gure ikur bihurtu den eskaintza honek kultura herritar guztien eskura jartzeko helburua betetzen du, abantaila ezin hobehekin. Inoiz baino arrakasta handiagoa izan zuen, eta eskaintza oparoagoaz gain, mugikorreko aplikazioaren bitartez jarraipena egiteko modua ere jarri genuen.



OHOLTZABERRI

Euskarazko antzerkigintza sustatzeko programa oso bat da, bere baitan proiektu bat baino gehiago barnebiltzen dituena. Antzerki sormen egonaldiak da nabarmenenetakoa: euskal antzerki konpainia profesionali azpiegiturak, sostengu teknikoa, ostalua eta egonaldiak gastuak eskaintzen dizkiegu, sorkuntza prozesua modu erosoan garatu ahal izateko. Trukean, emanaldia eta mediazio saio bat eskaintzen dizkigute, sortu dutenaren esentzia gurekin elkarbanatzeko.

Bestetik, Euskal Antzerkiaren Lekua jardunaldia eta Antzerki Sormen Laborategia ere jarri genituen martxan joan zen urtean. Biek ala biek, zentzuz asebetetzen dituzte egungo euskal antzerki jardunaren beharrak.



DAPA

Euskal kulturari eta kultur sortzaileei ikusgarritasuna eta hedapena emango dien ikus-entzunezko saioen bilduma osatzeko egitasmo sendoa da. Sarerako ekoiztutako lan bat da, sormenaz eta modu sortzailean, geuretik, euskaraz, egunero egiten eta desegiten gaituen kultur sorkuntzan jarritz gure bizinahiaren epizentroa. 2019an zehar prototipatzen eta lehen denboraldia osatzen aritu gara. Jalgi egitasmoaren barruan sortua, proiektuak Fagor enpresaren eta 2DEO ikus-entzunezko laborategiaren laguntza jaso du.



MEDIAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA

Zentzumenen gozagarri izateaz gain, kulturak baditu beste hainbat balio, balore eta medio. Badu zentzu kritikoa lantzeko gaitasuna, eztabidagaiek beste modu batetan lantzeko giltza, gizarteko problematiketara gerturatzen ahalmena. Bada, kultur edukiak eta sortzaileak herriko hainbat kolektiborekin bateratzen ditugu esperientzia aberasgarri anitzei bide emanez eta ekitaldi ireki bat eskainiz.



HITZAREN ESKOLA

Hizkuntza, beraz hitza bera, ardatzean jarrita sortu genuen eskola hau. Ez diziplina bat, bere tresna eta teknika espezifikoeekin, baizik eta hitza bera, bere ertz guztiekin, bere ahal izugarriarekin, bere izaera eta aukera guztiekin. Eta horretarako, hitza beren jardunaren oinarrian daukaten idazle, bertsolari, esatari, itzultzaile, gidoigile eta abarrak ekarri ditugu eskolak ematera, hitzaren ahozko nahiz idatzizko aldeak lantzeko, eta adierazpide bakoitzak besteak nola aberastu ditzakeen ikusteko, betiere osotasun baten bila: hitzaren jabe egitea belaunaldi berriak, hitza hartzeko bidea jartzea. Hitzaren Eskolan, sei irakasle bakoitza hilabetez jardun da askatasunetik eta sormenetik bere lanketa bideak proposatzen. Hilabete bakoitzaren amaieran ekitaldi ireki bat eskainita, eskola herrira zabalduta da.



UROLA ERDIKO TRIKITIAK 60 ETA 70 HAMARKADAN EGINIKO EKARPENA DOKUMENTATZEA

Trikigiro elkartearekin elkarlanean, 60ko eta 70eko hamarkadetan trikitiak eskualdean izandako eragina aztertzen duen dokumentazio lana egiten ari gara. Batetik, dokumental eder bat eta berrogeiren bat trikitilariren bideografiak plazaratuko ditugu, gure eskualdeko trikitiaren garapenaren protagonista izan zirenen eskutik. Bestetik, azterketa soziologikoa eta hainbat datu interesgarriren bilketa jasotzen duen liburu mardula argitaratuko dugu. Hori guztia bertako trikitiak Euskal Herrian izan duen eragina agerian jartzeko eta belaunaldi oso baten lanari aitortza egiteko.



ARKUPEHOTSAK

Musika proiektu berrien erakusleirhoa den egitasmoa bidea egiten ari da, soinu berrien plazarari etenik gabeko musika jarduna dario. Hirugarren edizioa ilusioz eta indarberrituta hartu genuen, formatua hobetzeko eta musika proposamen berriei oihartzun handiagoa emateko ahalegina berretsiz. Euskal Herriko txoko desberdinetatik jasotako hainbat musika proposameneri eman diegu lekua Sanagustin kulturguneko arkupeko oholztan, ikus-entzunezkoeta zein argazketan eta gure sustapen bideoetan. Gainera, egitasmo honen osagarri gisa Katapultatour Gipuzkoa egitasmoan parte hartzen ari gara hasieratik eta urtez urte.




EHUNTZEA

Ez gara geldirik egotekoak, eta eskualdean nahiz Euskal Herriko hainbat txokotan gure eredu partekatzen eta aberasten jarraitu dugu. 2019a urte emankorra izan da alde horretatik, eta kultur nahiz gizarte eragileekin ditugun harremanetan inoiz baino gehiago sakondu dugu. Elkarlana sustatzea, elkarrengadik ikastea eta harreman sarea zaintzea ezinbestekoak dira gure proiektua hobetzen eta aberasten jarraitzeko.


Aipatutakoez gain, 2019an beste zenbait egitasmotan ere parte hartu dugu eta proiektu berriak abiarazten ari gara. Zubi, Azpeitiko Mintzak, Nomadak, Irudikaria, eta beste zenbait egitasmoni esker, gure kultur ekosistema aberatsagoa da.

2019 GRAFIKATAN


EKITALDI KOPURUA URTEZ URTE




IKUS-ENTZULE KOPURUA URTEZ URTE




DIZIPLINEN ARTEKO OREKA




EKITALDIEN SUSTATZAILEAK




GENEROEN ARTEKO OREKA




JATORRIAREN ARABERA




ANTZERKIAN, EMAKUME-GIZONEZKO DATUAK




DANTZA, EMAKUME-GIZONEZKO DATUAK




ROCK KONTZERTUAK, EMAKUME-GIZONEZKO DATUAK



BESTELAKO MUSIKA, EMAKUME-GIZONEZKO DATUAK



EKITALDIEN KOMUNIKAZIO HIZKUNTZA




ALDERDI EKONOMIKOA

2019KO KULTUR JARDUERA	GASTUAK	%
1- KULTUR EKITALDIAK	179.899 €	30,70%
2- SORMEN ETA TRANSMISIO PROIEKTUAK	109.411 €	18,67%
3- PRODUKZIOA, ZERBITZU TEKNIKOA ETA LANGILE OSAGARRIAK	132.538 €	22,62%
4- PROMOZIO, KOMUNIKAZIO ETA IKUS-ENTZUNEZKO GASTUAK	65.326 €	11,15%
5- EGITURA GASTUAK (errentak, hornidurak, mantenua, aseguruak, zergak...)	45.289 €	7,73%
6- KUDEAKETA, ADMINISTRAZIOA, FORMAZIOA ETA LANGILEEN ARRISKU PREBENTZIOA	43.420 €	7,41%
7- AMORTIZAZIO ETA FINANTZA GASTUAK	10.081 €	1,72%
GUZTIRA 2019KO GASTUAK	585.964 €	


*2019KO KULTUR JARDUERA	SARRERAK	%
1- KULTUR EKITALDI ETA EKIMENEN SARRERA SALMENTA	150.632 €	25,71%
2- KULTUR ARLOKO DIRULAGUNTZAK	109.950 €	18,76%
3- KOOPERATIBAREN ZERBITZU DESBERDINAK ETA ELKARLANA	325.382 €	55,53%
3.1- ZERBITZU DESBERDINAK (OSTALARITZA, ZERBITZU TEKNIKOA, IKUS-ENTZUNEZKOAK, AHOLKULARITZA,...)	179.910 €	30,70%
3.2- ELKARLANA	76.409 €	13,04%
3.3- BABESLETZA	69.063 €	11,79%
GUZTIRA 2019KO SARRERAK	585.964 €	

2019KO KULTUR JARDUERA
GASTUAK




- 1- KULTUR EKITALDIAK
- 2- SORMEN ETA TRANSMISIO PROIEKTUAK
- 3- PRODUKZIOA, ZERBITZU TEKNIKOA ETA LANGILE OSAGARRIAK
- 4- PROMOZIO, KOMUNIKAZIO ETA IKUS-ENTZUNEZKO GASTUAK
- 5- EGITURA GASTUAK (errentak, hornidurak, mantenua, aseguruak, zergak...)
- 6- KUDEAKETA ETA ADMINISTRAZIOA
- 7- AMORTIZAZIO ETA FINANTZA GASTUAK

2019KO KULTUR JARDUERA
SARRERAK



- 1- KULTUR EKITALDI ETA EKIMENEN SARRERA SALMENTA
- 2- KULTUR ARLOKO DIRULAGUNTZAK
- 3- KOOPERATIBAREN ZERBITZU DESBERDINAK ETA ELKARLANA

KOOPERATIBAREN ZERBITZU
DESBERDINAK ETA ELKARLANA



- 3.1- ZERBITZU DESBERDINAK (OSTALARITZA, ZERBITZU TEKNIKOA, IKUS-ENTZUNEZKOAK, AHOLKULARITZA,...)
- 3.2- ELKARLANA
- 3.3- BABESLETZA

* Balantze honetan ez dira agertzen zinemako eta 2019 amaitu gabeko sustapen proiektuen gastu eta finantziakzioa.

* Herritar orok balantze guztiak(fakturak, agiriak...) xehetasunez kontsultatzeko aukera du kooperatiban edo Azpeitiko Udaleko kultura sailean.



Xabier Aranbarri

Kulturaz Azpeitiko Kooperatibako
Kudeatzailea

“Eskerrak ematea besterik ez
dagokigu eredu hau mantentzeko
indarra eta sostengua egunero
ematen diguzuenoi”

KOOPERATIBAREN DATUAK

Sortze data:

2011

Izena:

Kulturaz Azpeitiko Kooperatiba.

Izaera:

Soziala.

Bazkide kopurua:

112 parte hartzaile norbanako

21 langile

20 kultur talde

Langile kopurua:

28 langile

Proiektu honen hastapenetik, euskal kulturari balioa ematea eta euskal kultura guztion artean elkarbanatzea izan dugu helburu. Autofinantzazioa, elkarlana eta parte-hartzea ditugu oinarri. Urtez urte, inurri lanean proiektua hazi eta hazi ari da, nahiz eta hori ez izan azken helburua.

Urte oparoa izan da, oro har, 2019a. Finantzazio ildo guztiek izan dute igoera: kultur ekitaldien sarrerak (ikus-entzule kopurua igo baita); eskaintzen ditugun zerbitzuak (ostalaritza, aholkularitza, zerbitzu teknikoak, ikus-entzunezkoak...), zerbitzu berriak eta berritzaileak eskaintzen hasi baikara; babesle berriak eta indartsuak aurkitzeak; eta administrazio desberdinen laguntzen igoera, kooperatibaren kultur jarduera integrala eta bere oinarriak geroz eta baloratuago dira eta.

Hori guztia gure eredu oinarri hartuta, helmugara inoiz iritsi gabe, bidea bera baitugu helburu. Irabazi asmorik gabeko kooperatiba sozial bat gara. Langilea ardatz hartu eta balio erantsi moduan onartzen dugu, duintasunez, elkarren harteko konpromisoa eta horizontaltasuna sustatuz, proiektuaren gardentasuna mantenduz eta talde zein norbanako ezberdinen inplikazioa bultzatuz.

Beraz, eredu hau mantentzeko indarra eta sostengua egunero ematen diguzuenoi eskerrak ematea besterik ez dagokigu: kooperatibako bazkideoi; herriko kultur komunitate guztiari eta esparru ezberdinetako eragileoi; herritar norbanakoei kultur kontsumitzaile izan ala ez, egunero gurekin zaituztegunako; Euskal Herriatik (eta kanpotik) zatozten milaka eta milaka kulturzaileoi; ekonomikoki laguntzen gaituzuen erakunde, administrazio eta babesle desberdinei; eta, noski, Azpeitiko Udalarai, urtez urte baliabide eta baldintza hobeak jarritz, euskal kulturaren sustapenari eta gure eredu bereziari balioa emateagatik.

Asko daukagu hobetzeko, eta barkamena eskatu nahi dugu huts batzuk ere egin baititugu. Euskal kultura modu integralean sustatzeaz gain, gure ereduan sakondu eta indartu nahi dugu: etengabeko garapen eta eraldaketan, kooperatiba are gehiago gizarteratuz, elkarlana eta parte-hartzea eremu guztietara eramanez, proiektua guztiokin partekatuz eta erabakiguneak zabalduz.

Kultur jarduna oinarritik, transbertsalki eta osotasunean jorratuz, berrikuntza sozial garrantzitsu bat artikulatu nahi dugu, euskarazko kultur adierazpenen plaza eta herri nortasuna eraikitzeke tresna bat gehiago izanez. Horretarako, ezinbestekoa izango zaigu guztion parte-hartzea.

The background of the entire image is a photograph of a crowd at a concert or festival. The scene is bathed in blue light from stage lights. In the foreground, several hands are raised in the air, some holding up smartphones to capture photos or videos. The overall atmosphere is one of excitement and celebration.

**BIDELAGUNEI
ESKER,
AURRERA
GOAZ!**

Kultur*wz*
Azpeitiko Kultur Mahaiaren Kooperatiba